

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua ingurumena zaintzen lagunduko duen negozio txiki bat sortzea da. Horretarako, gure bezeroek baratzea egongo den zentroaren inguruan edo inguruan egon beharko lukete.

Ez dago bezero finkorik, baina izatekotan sukaldaritza graduko jendea, institutuko ikasle/irakasle eta Leioako jendea izango lirатеke gure bezero taldea.



Gure bezeroen adinari dagokionez, institutu inguruan dauden pertsonak izango lirатеke, batez ere irakasleak izango ziren, hala ere, baita ere bezeroak izango ziren institutuko ikasleak, unibertsitateko pertsonak, etab.

Gainera, bizimodu osasungarri bat izateko helburua duten pertsonentzat gure ortuan landatutako fruituak eta barazkiak eskuratzea aukera ezin hobea izango litzateke. Horren harira, gure produktuek ez lukete prezio alturik izango, gure helburua ez delako ekonomikoki diru kantitate handiak lortzea, partaideen artean euskara sustatzea eta janari osasungarriarekiko harremanak hobetzea baizik.

Gure helburua lortzeko, gure bezeroak bi taldetan banatuko genituzke.

Lehen taldean, proiektuan esku hartuko zuten bolondresak egongo ziren, azken finean gure funtsezko “bezeroak” izango ziren, hau da, gure lana gauzatzeko eta lortu nahi ditugun helburuak betetzeko behar ditugun pertsonak.

Bigarren taldean, proiektua ekonomikoki mantentzeko bezeroak egongo ziren, gure saskian erosleak, alegia. Talde honetan, bi azpitalde nabarmendu ditugu:

- Lehenengoan, institutuko dietetika lanbide heziketako ikasleak egongo lirатеke, elikagaien saski horiek erabil ditzaketenak haiei buruzko ezagutzak sustatzeko. Hortaz, modu praktikoagoan ikasiko lituzkete hainbat irakasgai. Hala ere, ikastetxeko bai ikasle, irakasle zein langileek gure baratzeako produktu saskiak erosteko institutu berean salmenta-zerbitzua izango genuke.
- Bigarren taldean Leioako Unibertsitateko ostalaritzako ikasleak eta Kurtze Bekoa jatetxea sailkatu ditugu, baratzea egingo den lekutik nahiko gertu egongo zirelako eta ikasle horien lanbide prestakuntza erraztuko zuelako.

